

LANDALUZE 27

Herritarrekin egindako parte-hartze saioaren akta

2026ko maiatzaren 13a

18:00 - 20:00

Parte-hartzaileak: 25

Aurkibidea

1. Ongietorria eta saioaren helburuak
2. Lehen dinamika: jarduerak, erabilerak eta bizitza espazioan
3. Bigarren dinamika: printzipioak eta zertarako
4. Hirugarren dinamika: 2028ko maiatzerako espero diren eraginak
5. Hurrengo urratsak

1. Ongietorria eta saioaren helburuak

Saioa Laudioko Udalaren eta talde bideratzailearen ongietorriarekin hasten da. Nabarmentzen da, auzotarrek hala eskatuta, parte-hartze saioak Landaluze 27ko lokalean bertan egingo direla. Erabaki horrek proposamenak espazioaren ezagutza zuzenago batetik lantzea ahalbidetzen du, haren aukerak eta mugak kontuan hartuta.

Saioa **auzoko komunitate-bizitza indartzeko gai izango den espazio mota** identifikatzen jarraitzeko helburuarekin planteatzen da.

Horretarako, hiru bloke lantzen dira:

- Jarduerak, erabilerak eta bizitza espazioan.
- Landaluze 27 gidatu beharko luketen printzipioak.
- Epe ertainean auzoan aurreikusten diren eraginak.

Aurkezpen txanda labur baten ondoren, bertan pertsona bakoitzak bere izena eta Landaluze 27n gertatzea gustatuko litzaiokeen zerbait partekatzen duen, taldekako lanari ekiten zaio.

2. Lehen dinamika: jarduerak, erabilerak eta bizitza espazioan

Lehen dinamika **Landaluze 27n zer jarduera garatu** ahal izango liratekeen eta asteko zer unetan izango luketen zentzua irudikatzean oinarritzen da.

Proposamenek eguneroko elkargune izateko bokazio argia duen espazio baterantz jotzen dute, belaunaldiarteko, kultura-, hizkuntza-, ongizate- eta bizikidetzeta-jarduerekin. Indarrez agertzen dira mugimenduarekin, osasunarekin, ikaskuntza partekatuarekin, euskararekin, euskal kulturarekin, kultura-aniztasunarekin eta jolasekin lotutako jarduerak, azken horiek komunitate-harremanetarako tresna gisa ulertuta.

Taula hau ez da behin betiko programazio bat, baizik eta parte-hartzaileen ideien lehen antolaketa bat. Haren erabilgarritasuna Landaluze 27k nolako bizitza hartu ahal izango lukeen irudikatzean datza, asteko une desberdinetan erabilerak beharrak identifikatzean eta ondorengo kontraste tekniko, antolakuntzazko eta bizikidetzazkorako oinarri gisa baliatzean.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
GOIZEAN		<ul style="list-style-type: none"> Pilates Berbalagun Clases de manualidades 	<ul style="list-style-type: none"> Juegos y entretenimientos 	<ul style="list-style-type: none"> Pilates 			<ul style="list-style-type: none"> Danzas vascas
ARRATSALDEAN	<ul style="list-style-type: none"> Bienestar físico-emocional Berbalagun Eskulanak (pintar, madera, coser...) 	<ul style="list-style-type: none"> Bienestar físico-emocional Encuentros conversacionales en otros idiomas 	<ul style="list-style-type: none"> Eskulanak (pintar, madera, coser...) Elkar irakastea - compartir tiempo Euskal Dantza 	<ul style="list-style-type: none"> Berbalagun Clases de euskera Charlas de aprendizaje (1º auxilios, alimentación...) Actividades que posibiliten la relación (juegos de mesa) 	<ul style="list-style-type: none"> Apoyo a pelota vasca (reuniones) Dantza (plaza dantza eta edozein kulturetako) Cuenta cuentos Proyectar películas 	<ul style="list-style-type: none"> Dantza (plaza dantza eta edozein kulturetako) Campeonato de mus (brisca o tute) Jokoak ikasi (talde jokoak: mus, xakea, beste kultura batekoak) 	
	EGUN/ORDU ZEHATZIK GABE	Movilidad personas mayores (por la mañana)	Gym mayores (por la mañana)	Juegos de mesa, liburutegi, euskara (por la tarde)			

3. Bigarren dinamika: printzipioak eta zertarako

Bigarren dinamika **Landaluze 27ren etorkizuneko funtzionamendua gidatu beharko luketen printzipioak** identifikatzean oinarritzen da.

Lehenetsitako printzipioek erakusten dute taldeak lehen lerroan kokatzen dituela espazioaren itzulera soziala, bizikidetzeta eta irisgarritasuna. Landaluze 27 auzorako ekipamendu erabilgarri, inklusibo, garden eta kultura- zein hizkuntza-aniztasunari irekita dagoen espazio gisa irudikatzen da.

Aipamen bana jasotzen duten printzipioek norabide hori indartzen dute: sarbide irekia, jardueren aniztasuna, jasangarritasuna, erabilera komunitarioa, erabileren txandaketa eta erantzukidetasuna. Oro har, gune partekatu bat proposatzen dute, funtzionatzeko arau argiak eta askotariko erabilerak hartzeko gaitasuna behar dituen, komunitate-zentzua galdu gabe.

LEHENETSITAKO PRINTZIOAK

"Printzipioak eta zergatik" dinamikaren emaitzak



GEHIEN AIPATUTAKO PRINTZIOAK

	Retorno social Gizarte-itzulkina		5 aipamen
	Convivencia Bizikidetzeta		4 aipamen
	Accesibilidad e inclusión Irisgarritasuna eta inklusioa		4 aipamen
	Transparencia Gardentasuna		3 aipamen
	Diversidad cultural y lingüística Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna		3 aipamen

BESTE PRINTZIOO BATZUK (AIPAMEN 1 BAKOITZA)

	Acceso abierto Sarbide irekia	1
	Diversidad de actividades Jardueren aniztasuna	1
	Sostenibilidad ambiental Ingurumen-jasangarritasuna	1
	Uso comunitario Erabilera komunitarioa	1
	Rotación de usos Erabileren txandaketa	1
	Corresponsabilidad Erantzukidetasuna	1

 Printzipio hauek taldeak ezinbestekotzat jotzen dituen balioak islatzen dituzte, Landaluze 27 auzoarentzat espazio erabilgarri, inklusibo, bidezko eta jasangarria izan dadin.

4. Hirugarren dinamika: 2028ko maiatzerako espero diren eraginak

Hirugarren dinamikan, **Landaluze 27 denbora batez irekita dagoela eta ondo funtzionatzen duela irudikatzea** proposatzen da. Talde bakoitzak galdera honi erantzuten dio:

“Auzoko bizitzari begiratzean, lehen ez zegoen zer aldaketa positibo sumatzen duzu?”

Ekarpenak ideia nagusi hauetan multzokatzen dira:

- Adinekoen isolamendua eta bakardadea murriztea.
- Auzotarren arteko ezagutza handiagoa: auzoko beste pertsona batzuen izenak, egoerak eta beharrak ezagutzen dira.
- Ongizate emozionala, fisikoa eta psikologikoa hobetzea.
- Osasun, alaitasun eta komunitate-asebetetze handiagoa.
- Agur, eguneroko harreman eta pertsonen arteko konfiantza gehiago.
- Auzo aktiboagoa, dinamikoagoa eta biziagoa.
- Interakzio, bizikidetza eta gertutasun handiagoa.
- Komunitate-laguntza eta auzotarren arteko lankidetzaren handitzea.
- Jarduera eta proiektu berriekiko ilusio eta interes handiagoa.
- Bakarrik bizi diren adineko pertsonengana gehiago hurbiltzea.
- Auzotik bertatik sortutako hobekuntza-proposamen gehiago.
- Kulturartekotasuna eta tolerantzia handitzea.
- Harreman enpatikoagoak, asertiboagoak eta belaunaldiartekoak.
- Aniztasunarekiko onarpen handiagoa.
- Landa-eremuarekin, naturarekin eta Landaluzeko ingurunearekin lotura handiagoa izatea.

Taldeek eraikitako etorkizuneko irudia programazioa duen lokal bat edukitzetik harago doa. Auzoko eguneroko bizimoduan aldaketa bat proiektatzen da: auzokideen arteko harreman gehiago, bakardade gutxiago, jarduera komunitario gehiago, ongizate handiagoa eta ingurunearekiko lotura sendoagoa.

Ildo horretan, Landaluze 27 loturak aktibatzeke, elkarrekiko laguntza sortzeko, pertsonen ongizateari eta osasunari laguntzeko, auzotarren ekimen berriak bultzatzeko eta belaunaldien eta kulturen arteko bizikidetza bultzatzeko tresna gisa ulertzen da.

5. Hurrengo urratsak

Saioa amaitzean prozesuaren hurrengo urratsak gogorarazten dira:

- Interesa duten pertsonekin komunikazioa aktibo mantentzea.
- Parte-hartze prozesura pertsona gehiago batzen jarraitzea.
- Auzotarrei prozesuarekin lotutako informazio guztia partekatzeko WhatsApp kanal bat dagoela jakinaraztea:
<https://labur.eus/Landaluze27WA>
- www.landaluze27.eus plataformaren bidez ekarpenak egiten jarraitzea (proposamenak jasotzeko epea **maiatzaren 28ra arte** egongo da **zabalik**).
- Ekipamenduan bertan, 18:00etan, aurreikusitako **hurrengo lan-saioekin** jarraitzea:
 - **Maiatzaren 27an:** espazio fisikoaren beharrak eta haren antolaketa lantzea.
 - **Ekainaren 3an:** jasotako proposamenak partekatzea eta hurrengo urratsak zehaztea.

Halaber, gogorarazten da proposamenak ondoren ordenatu, lehenetsi eta kontrastatu beharko direla irizpide tekniko, juridiko, ekonomiko eta bizikidetzazkoen arabera, etorkizuneko ekipamenduaren aurreproiektuaren oinarri izan daitezen.